

II. PHOTOKA ARGAZKI RALLYA

ANTOLATZAILEA: PHOTOKA GERNIKA

DATA: 2026ko, Urriak 3, larunbata.

IZEN-EMATEA: Izen-ematea Kultur-etxe ondoko María Aguirre lokalean egingo da, Foru Plazan, 8:30etik 9:30era.

GAIK: Izena ematerakoan, parte-hartzaileari bete beharreko 5 gai adieraziko zaizkio, dagozkion kontrol-argazkiez gain (argazki horiek ere adieraziko dira), eta bere kamera erabili beharko du (bakarra), hasieran hutsik egon behar den memoria-txartel batekin. Antolatzaileak baliozkotuko du aurkeztutako argazkiek gaia betetzen dutela, eta betetzen ez dutenak deskalifikatuko ditu. Betetzen duten ala ez zalantza sortzen dutenak ere deskalifikatuko dira.

PREZIOA: Izen-ematearen prezioa **10,00€** izango da. Inskripsioarekin, **Auzokoa** tabernan pintxo eta edari bat hartzeko tiket-a jasoko da.

MODALITATEA: Argazkilaritza DIGITALA. **JPG** formatuan, kalitate handiena.

- Kameraren parametro klasikoak onartzen dira: saturazioa, zorroztasuna, kontrastea, etab. betiere, argazkia atera aurretik.
- Koloreak eta zuri-beltzak onartzen dira.
- Edozein motatako filtroak, flasha... argazkia ateratzen den momentuan efektuak sortzen dituen edozein elementu mota onartzen da, baina ez argazkia atera ondoren editatu edo manipulaturakoak.
- Kamerek eskaintzen dituzten sormenezko edizio-efektuak, hala nola, kolore selektiboa, miniaturazko efektua, posterizazioa, etab., baita irudien ondorengo edizioa ere, kameran bertan edo kanpoko gailuetan, debekatuta dago.

BALDINTZAK:

- Rallyaren hasieran txartelak hutsik egon behar du.
- Txarteleko lehen argazkia parte-hartzailearen erretratua izango da inskripzio zenbakiarekin. Kontroleko argazkia derrigorrezkoa izango da, puntuatuko ez duen arren.
- Irudi-formatu bakarra dago baimenduta aurkeztutako bilduman (aldez aurretik aukeratzekoa, hala badagokio): 3:2, 4:3, 16:9 edo 1:1.
- Etxe partikularretan, zentro pribatuetan edo Gernikatik kanpo ateratako argazkiak baztertuko dira.
- Gaietarako argazkiak bakarrik egin daitezke espazio publikoetan, irekiak edo estaliak, hala nola kiroldegietan, tabernetan, frontoietan edo kultur-etxeetan, adibide batzuk jartzearren.
- Parte-hartzaileak argi eta garbi ulertu beharko du azken helburua dela egun bat pasatzea besteekin zaletasuna partekatuz eta argazkilaritzaz gozatuz, eta,

horregatik, besteekin alderatuta abantaila-egoera bat sortzea zigortuko da. Beraz, antolatzaileak baztertu ahal izango ditu argazki-ekipokoak ez diren elementuekin nahita egindako argazkiak, hala nola rallya garatzen den inguruetan modu naturalean aurkitzen ez diren elementuak, adibidez nola etxetik ekarritako objektuak, dendetan erositakoak, etab.

- Halaber, inguruko espazio naturaletik kanpo argiztapen-egoera bat sortzea zigortuko da, baldin eta lekua ezagutzen ez bada edo rallya garatzen den ingurunearekin zerikusirik ez duen espazio prestatu bat dela ikusten ez bada.
- Kendu egingo dira pantaila grafikoei egindako argazkiak, hala nola mugikorrei, tabletei eta abarrei egindakoak, salbu eta gailua argi eta garbi ikusten bada eta argazkiaren konposizioaren eta asmoaren parte bada.
- Inprimittutako argazkiei egindako argazkiak baztertuko dira, osorik edo zati batean sartu badira, salbu eta zalantzarik gabe ikusten bada euskarria, kanpoaldea eta abar; hau da, argazkiaren konposizio-asmoa antzematen bada gaia lantzeko eta ez bada aprobetxatzen hirugarren batek jadanik sortutako irudia eta berea balitz moduan jokatu.
- Rallyn entregatutako argazkiak ezin izango dira publiko egin, antolatzaileak epaia eman arte, dela sarbide publikoko sare sozialetan, blog pertsonaletan, beste lehiaketa batzuetan eta abarretan. Parte-hartzailearen batek hala egiten badu, rallytik kanpo geratuko da.
- Baimenduta dago eremu pertsonaletan erakustea, hala nola whatsapp talde pribatuetan, kontsultatzeko eta alderatzeko asmoz.

RALLYAREN KOKAPENA: Gernika-Lumo herrian bakarrik.

RALLYAREN AMAIERA: 13:30ak eta 14:30ak bitartean txartelak deskargatuko dira (argazkiak onartzeko azken ordua) inskripzio puntu berean. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 36 argazki deskargatu ahal izango ditu, JPG, (kontroleko argazkiak barne). Argazkiak entregatu baino lehen, soberan dauden irudiak ezabatzea onartzen da.

HAUTAKETA: Parte-hartzaileek gai bakoitzerako argazki bat aukeratu beharko dute eta egindako aukeraketarekin email bat bidali photokagernika@gmail.com helbidera. Hautatutako argazkia aurkezteko epea urriaren 9a 24:00etan izango da, parte-hartzailearen zenbakia, izen-abizenak, gai bakoitzaren letra eta argazki zenbakia, bertikala edo horizontala diren adieraziz. **Argazkiak EZ dira bidaliko**, erakundeak dagoeneko badituelako. Zerrenda bakarrik, gaia eta argazki zenbakia adieraziz; adibidez: A 3456(Horizontala), B 7890(Horizontala), C 1209(Bertikala)...

EPAIMAHAI: Argazkigintza munduko 4 kide izango dira, Herriz Herri txapelketak izendatuak, eta argazki bakoitza puntu 1etik 10era baloratuko dute. Partaide bakoitzaren puntuazioa, epaimahai bakoitzak emandako 5 argazkien puntuen batura izango da.

SARIAK:

1. Lehen sailkatua: 220 € eta garaikurra.

2. Bigarren sailkatua: 140 € eta diploma.
3. Hirugarren sailkatua: 70 € eta diploma.
Saririk jaso ez duen lokal onena: 70 € eta diploma.

SARI BANAKETA: Epaimahaiaren erabakia ezagutu ondoren, antolakuntzak irabazleei jakinaraziko zaie. Sari-banaketa bat egingo da Urriak 23an, 18:00tan Gernika-Lumoko kultur Etxean. Bilduma guztiak bertaratutako guztientzat proiektatuko dira.

OHARRAK:

- Rallyan parte hartzen dutenek onartzen dute aurkeztutako argazki irabazleak Photoka Gernika eta Gernikako Udalaren eskura izango direla eta hauek argitaratzeko eskubidea gordetzen dutela, baina kultur edo argazki sustapenerako soilik. Egilearen izena beti agertuko da.
- Rallyan parte hartzen dutenek onartzen dute euren argazkiak Photoka Gernika elkarteko eta Gernikako Udaletxeko hainbat hedabidetan ikusgai jartzea.
- Rally honetan parte hartzeak oinarriak osorik onartzea dakar eta bertan aurreikusi ez den edozein gorabehera, Antolakuntza Batzordeak ebatziko du.
- Parte-hartzailea da argazkietan agertzen diren pertsonen erreklamazioren bat izanez gero, bere irudi-eskubideen erantzule.
- Photoka Gernika **EZ** da izango rallyan parte hartzen duten pertsonen argazki eta ekipamendu teknikoaz, erorketen ondoriozko kalteak, lapurretak edo istripuen ondorioz sortutako kalteen arduraduna.
- Argazki rally honek Herriz Herri argazki rally txapelketarako balio du. Ikusi arauak <https://hhargazki.eus> helbidean.